Tresnak **arrazakeriaren** aurka **etxebizitzen alokairuan**

zehar errefuxiatuekin

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Bizkaia foru aldundia diputación foral

araba álava foru aldundia diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA DRAIN El futuro

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

SARRERA

Yahya Aaboud edo bere abizenagatik baztertu zuen higiezinen agentzia salatu zuen ekintzailearen kasua

Yahya Aaboud euskal enpresa bateko finantza aditua da. Soldata ona du, itxura ona, hizkera elegantea, jokamolde bikaina. Hala ere, Irungo higiezinen agentzia batek ezetza eman zion etxebizitza bat alokatu nahi izan zuenean, bere abizen marokoarra tarteko.

2020an gertatu zen dena. Yahyak, etxebizitza bila aritu ondotik, azkenean aurkitu zuen bere gustukoa. Higiezinen agentziara deitu zuen, etxebizitza libre zegoela baieztatu eta erreserbatzea erabaki zuen. Baina, kontratua prestatzen has zitezen emailez bere dokumentazioa bidali ondoren, agentziak esan zion, bat-batean, etxebizitza ez zegoela eskuragarri. Yahyak, higiezinen agentziaren erantzunaren aurrean harrituta, «hemengo» lankide bati kontatu zion gertatutakoa. Bien artean adostu zuten lankideak agentziara deituko zuela eta etxebizitza bera alokatzeko interesa zeukala adieraziko zuela. Yahyaren susmoa berretsi egin zen: etxebizitzak libre jarraitzen zuen. Lankideak hitzordua jarri zuen etxebizitza ikusteko eta, adostutako orduan biak batera joan ziren hura ikustera. Higiezinen agentziako arduraduna aho bete hortz gelditu zen, eta aitortu zuen higiezinaren jabeak jarri zuela bere pisua «kanpoko jendeari» ez alokatzeko baldintza. Hori guztia mugikorrarekin grabatutako audio batean jaso zen.

Oso azkar ibili zen Yahya. Izan ere, grabaketa horretan funtsezko **frogak** bildu ziren, gero salaketa jartzeko balio izan dutenak. Batetik, frogak jasotzeko egin behar denaren adibide da, frogak jasotzea izaten baita, hain zuzen, oztoporik handiena bazterkeriazko gertakariak salatzeko. Bestetik, audio horrek frogatu eta berretsi egiten du hainbat aldiz ukatu eta frogarik ezagatik isilarazten den egunerokotasuneko errealitate bat: pertsona atzerritarrek alokairuko etxebizitzen merkatura sartu nahi izaten dutenean jasaten duten bazterkeria.

Dena den, bi horiez gain, badaude Yahyaren kasua aipagarri egiten duten beste faktore batzuk ere. Jasan zuen **bazterkeria salatzeko herritarren esku dauden hainbat tresna** erabiltzeko iniziatiba eta ausardiak bihurtu dute bere kasua aztergai. Jarraian azaldu dugu zehatzago.

Lehenik eta behin, Yahyak, higiezinen agentzia salatu ordez, Eusko Jaurlaritzaren Etxelbizitza Sailera jotzea erabaki zuen; zehatzago esanda, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzara (**tresna instituzionala**). Eusko Jaurlaritzara jo zuen, hura delako zerbitzu publiko batean, higiezinen agentzia batean, kasu, (gizarteari, orokorrean, zuzendutako zerbitzua delako) jarduketa baztertzailerik ez izatearen azken arduraduna eta hala izan dadin bermatu beharko lukeena. Yahyak Eusko Jaurlaritzari agentzia hari zehapenak ezartzeko eskatu zion, jarrera baztertzailea izateagatik.

Eusko Jaurlaritzak, zehapena ezarri ordez, espedientea artxibatu eta prozeduran okerren bat zegoela argudiatu zuen. Gauzak horrela, Yahyak bide judizialera jo behar izan du (**tresna juridikoa**), bigarren aukera gisa. Testu hau idazten ari garen unean, kasua epaiaren zain dago.

Hirugarren aukera bat ere ireki du, ez baitzuen nahi salaketa bide judizialetik soilik egin; eta hala, **publikoki salatzeko eskuragarri izan dituen tresnak erabili ditu**. Horien artetik, **tresna mediatikoak** aipatuko ditugu. Hainbat komunikabidek argitaratu dute bere kasua, Diario de Noticias de Gipuzkoak (erreportajea hemen ikusgai: https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/sociedad/2023/07/02/sido-labor-policial-demostrar-alquilan-6992014.html) edo EITB euskal telebistak, esaterako.

Tresna sozialei dagokienez (hots, erakunde sozialak buru dituztenak), kasua arraza bazterkeriari eta etxebizitzari buruzko «Ausartak» hizketaldian aurkeztu zuten. Jardunaldia, Eraberean Tratu Berdintasunaren Aldeko eta Diskriminazioaren Kontrako Euskal Sareak eta Zehar-Errefuxiatuekinek antolatu zuten Donostian pasaden urriaren 5ean. Bertan, Yahyak *hirugarren sektorea* esaten zaion horretako elkarte eta erakundeen babesa jaso zuen; izan ere, zutela adostu zuten beraien parte hartze sozialeko eta eragin politikoko espazioetan kasuaren berri emango. Entitate horietako batek, Provivienda 1989tik ari da lanean pertsona guztiek etxebizitza bat baldintza berdinetan izateko eskubidea izan dezaten. Horretarako, bizitzak aldatuko dituen eta komunitatea sortuko duen egoitza-inklusioko eredua defendatzen du.

Helburu hori bera dute bazterkeriaren aurka laguntza bila Yahya gerturatu den herri eragileek ere. Mobilizaziorako herri tresna horien barruan, 2021eko martxoaren 21ean Vitoria-Gasteizen hainbat kolektibok antolatu zuten kontzentrazioa aipatuko dugu, Diskriminazioaren Kontrako Nazioarteko Egunaren kariaz. Bertan egunerokotasunean gure kale, herri eta hirietan gertatzen diren zenbait bazterkeria lekukotasun eta gertakari irakurri ziren, Yahyarena horien artean.

Laburbilduz Yahya Aaboudek bere baitan biltzen ditu inkorformismoa eta bazterkeriaren aurkako aktibismoa. Gizarte mobilizazioko tresna instituzionalak, juridikoak, mediatikoak, sozialak eta hiritarrak erabili ditu, erakusten jarduteko modu bat non ez dira normalizatzen hainbat pertsona migratuak, errefuxiatuak eta arrazializatuak egunerokotasunean jasaten dituzten bazterkeria egoerak. Horixe erakusten dute hurrengo atalean azaldu ditugun azterketek.

Testuingurua: diskriminazioa frogatuta

Yahya Aabouden kasuak eta antzeko beste askok erakusten digute etxebizitzen alokairuaren esparruko arrazakeria benetakoa dela. Hala berresten dute **hainbat entitatek eginiko azterlanek eta txostenek**. Txosten hauek ez dizkigute hainbeste bazterkia hori jasatzen dutenen datu kuantitatibo zehatz eskaintzen, baizik eta leku eta une jakin batean gertatzen denaren argazkia.

Argazki hori eskuratzeko erabilitako metodologia ohikoenetako bat da **etxebizitzen testing**a. Xede du jasotzea zer gertatzen den pertsona atzerritarrek edo arrazializatuek alokairuko etxebizitza bat bilatu eta etxebizitza agentzien, etxejabeen edo alokairu ordezkarien partetik bazterkeriazko jarrerak jasaten dituztenean. *Testing*a, berez, etxebizitza baten bila ari diren fikziozko pertsonen profilak asmatzean datza: profil horien arteko ezberdintasun bakarra beraien arraza edo etnia ezaugarriak dira. Ondoren, etxebizitza agentzietara bidaltzen dira, trataeran izan daitezkeen desberdintasunen ezein froga behatu eta jasotzeko; esaterako, baldintza ezberdinak eskaintzea, prezio baztertzaileak edo arrazakeria zantzuak dituzten jarrerak.

Metodologia hori honako azterlan hauetan erabili da:

*Ixten diren ateak (Puertas que se cierran) Alokairuko etxebizitzetarako sarbidean biztanleria etorkina baztertzeari buruzko testing*a, Espainiako

Estatuko SOS Arrazakeria Elkarteen Federazioak eginikoa. Hemen eskuragarri: https://sosracismo.eu/wp-content/uploads/2016/07/Puertas-que-se-cierran-Testing.pdf

Higiezinen agentzietako testinga: Bilboko atzerritarrek alokairuko etxebizitzak eskuratzeko pairatzen duten diskriminazioari buruzko ikerketa, Zehar-Errefuxiatuekin eta SOS Arrazakeriak eginikoa. Hemen eskuragarri: https://sosracismo.eu/wp-content/uploads/2016/06/testing-sos-racismo-2011-cast.pdf

SOS Arrazakeriak eta Zehar-Errefuxiatuekinek eginiko txostena «Etxea alokatzen da; etorkinei ez» leloaren ilegaltasuna eta itsuskeria. Hemen eskuragarri: https://www.sosracismoaragon.es/InformeAnual2016.pdf

Beste ikerketa interesgarri bat ere egin zuen Asociación Proviviendak 2020an, hauxe zen izenburua: *Alokatzen da? Arrazakeria eta xenofobia alokairuaren merkatuan.* Hemen eskuragarri: https://www.provivienda.org/informe-se-alquila-racismo-xenofobia-mercado-alquiler/

Proviviendak duela oso gutxi beste azterlan bat argitaratu du: *Etxebizitza bazterkeriaren prebentzioa eta arreta. Azalpen faktoreak* (hemen eskuragarri: https://www.provivienda.org/datos-vivienda-espana/). Bertan erakusten dute nola badagoen profil soziodemografiko bat etxebizitza bazterkeria jasateko joera duena. Hala, txosten horren 32. Orrialdean baieztatzen da bazterkeria eta salbuespen datu horrek «asko egiten duela gora jatorri afrikarra, latinoamerikarra eta asiarra duten biztanleen kasuan: 10 etxebizitzatik 6tan bizi dute egoera hori».

«10 etxetatik 6tan» **datuak** berresten du Berdintasun Ministerioko Tratu Berdintasunerako eta Arraza Aniztasun Etnikorako estatuko Zuzendaritza Nagusiak 2022an argitaratutakoa, honako izenburu honen pean: *Arraza bazterkeria etxebizitzaren eta asentamendu informalen eremuan* (hemen eskuragarri: https://www.lamoncloa.gob.es/serviciosdeprensa/notasprensa/igualdad/Documents/2022/180322_Informe_Discriminacion_racial_2022.pdf): «arraza edo etnia jatorri ezberdineko pertsonen % 31k jasan zuten bazterkeria etxebizitzarako sarbidean; % 17,7ri ez zioten etxebizitzarik erakutsi, %20.8ri ez zioten alokatu nahi izan eta % 20,1i baldintza gehiago betetzea eskatu zioten».

Atal hau bukatzeko alokairuko pisu baten bilaketan ari diren erabiltzaileen ordez higiezinen agenteak elkarrizketatuz egin den azterlan bakarretakoari erreferentzia egingo diogu. Bartzelonako Udalak egin zuen 2021ean,

eta honako izenburu hau ezarri zioten: «*Bereizkeria nahieran: Arrazoi etnikoengatiko bazterkeria Bartzelonako alokairuko etxebizitzen merkatuan*». Higiezinen agenteei eginiko 350 telefono deietan oinarritu zen azterlana, eta etxejabeek etxebizitza alokatzeko eskabideetan jartzeko irizpideak ezartzeko orduan diskriminazioa zegoela zenbat agentek onartu zuten kuantifikatu zuen.

Zer egin?

Aurrez aipatutako txostenetan ageri da zer gertatzen den eta zergatik. Hurrengo pausoa da, etxebizitzarako sarbidean dagoen diskriminazio horri **nola** egin behar zaion kontra. Jarraian zerrendatu ditugu **hainbat alorretako tresnak**, Yahyak erabili zituenak barne, eta beste batzuk. Eskuragarri jarri ditugu halako diskriminazio gertakari bat salatu nahi duen ororentzat.

Tresna juridikoak

Baliabide juridiko deritzogu **epaitegi batean salatzea** ahalbidetzen dutenei. Aukera hori bide penaletik baino ezin da egin gaur egun, diskriminazioa zigortzen duen **Zigor Kodeko 512. Artikuluaren** bidez. Hala ere, artikulu hori aplikatu ahal izateko arazo ikaragarriak izaten dira, formulatuta dagoen moduaren arabera, zerbitzu publiko bat irizpide baztertzaileen bidez ematen duen profesionala zigortuko bailuke, baina ez etxejabe bat, hark ez baitu zerbitzua ematen, nahiz eta beharrezko laguntzailea izan. Horregatik erabili izan da 512. artikulu hori beste alor batzuetan (aisialdi lokaletarako sarbidea debekatzeko epaietan, esaterako), baina ez inoiz higiezinen agentzietan.

Esan beharra dago bide zibila esploratzeke dagoela (zeina bide judizialaren barruan dagoen, nahiz eta bide penalaren alternatiba izan), hots, partikularren arteko harremanen alor pribatukoa. Bide zibilean, kontratazio eskubidea legoke erdigunean, eta zigortu egingo lirateke etxejabe batek berdintasun printzipioaren aurkako klausula baztertzaileak sartzea higiezinen enpresarekin sinatutako bitartekaritza kontratuan. Giltza honako hau da: nahiz eta klausula horiek legez kanpokoak direla jakin, inoiz ez dira aipatutako bitartekaritza kontratuetan idatziz jasotzen.

Tresna instituzionalak

Etxibizitzaren esparruan (eta Etxebideren gida albo batera utzita, babes publikoko etxebizitzen eskumena baitu soilik), Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritzaren instituzio nagusia da. Sail honek legezko betebeharra du, administrazio publiko denez, higiezinen zerbitzuek ematen dituzten jarduerak, publiko diren heinean publiko orokorrari irekita daudenak, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatuz egiten direla gainbegiratu, fiskalizatu eta kontrolatzeko.

Bereizkeriaren aurka esku hartzeko betebehar generiko hori Euskadiko administrazioaren esku zegoen lehen ere, hari gogorarazteko diskriminazioaren aurkako estatu mailako arau bat egon baino lehen (15/2022 Legea). Ekainaren 18ko 3/2015 Euskal Legeari buruz ari gara, etxebizitzari buruzkoari (duela gutxi onartu dute erregelamendua). Lege horren Lehenengo Xedapen Gehigarriaren 83. artikuluan arau hauste oso larri jotzen ziren higiezinen zerbitzuetan parte hartzen zuten agenteek eginiko ekintzak edo omisioak, baldin eta higiezin jazarpena edo diskriminazioa eragiten bazuten. Era berean, horiei dagozkien zehapenak aurreikusten ziren. Ezein etxebizitzatarako sarbidean diskriminazio kasuak daudenean, artikulu horren bidez esku hartzeko eskatzen zaio Eusko Jaurlaritzari, eta salatu egiten da hala egiten ez badu.

Gaur egun, aipatu bezala, arau hori estatu mailako Tratu Berdintasunaren Aldeko eta Diskriminazioaren Kontrako uztailaren 12ko 15/2022 Legearen bidez osatzen da. Lege horren 20. artikulua etxebizitzari buruzkoa da, hain zuzen ere. Artikulu horrek dio administrazio publikoek tratu berdintasunerako eskubidea errespeta dadin bermatu behar dutela, espezifikoki aintzat hartuta, zaurgarritasun handiagoko egoeran dauden edo diskriminazio motaren bat jasateko aukera handiagoa duten pertsonen beharrak zeintzuk diren.

Bi arau horiek beraz, administrazio publikoa ikertzera behartzen dute, higiezinen agentziaren batek diskriminaziozko jarreraren bat izan duelako susmoa dagoen bakoitzean ikertzera. Horrela, bada, higiezinen agentzia batean diskriminazio kasuren bat gertatuz gero, kasua jasan duen pertsonak **salaketa Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailera bideratu** ahalko luke, eta ahalik eta froga gehien aurkeztu.

Arartekoari dagokionez**,** EAEko Herriaren Defentsa edo Ombudsmana da, bere egiteko nagusia herritarrei arreta eskaintzea da, administrazioan izaten diren jardunbide desegokiei buruzko kexa edo demandei

erantzuteko. Bere web orrian "***Egin zure kexa***" atala ere badauka, zeina, gainera, irakurketa erraz gisa idatzita dagoen (https://www.ararteko.eus/es/presenta-tu-queja).

Gogora dezagun Etxebizitza Sailera kexa helarazteko beste modu bat ere badagoela: higiezinen agentzian bertan erreklamazio orriak eskatzea. Izan ere, agentziek dokumentu horiek izateko eta eskatzen dituenari emateko betebeharra dute.

Autonomiako azken tresna gisa, Eusko Jaurlaritzaren Bizilagun zerbitzua aipatuko dugu (https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/bizilagun-bitartekaritza-zerbitzua/). Zerbitzua publikoa eta doakoa da, eta etxejabeen eta maizterren arteko bitartekaritza lanak egiteko eskumena du, horien artean zuzenean sortu eta konpontzen ez diren liskarrak konpontzeko.

Dena den, autonomietako instituzioak ez dira diskriminaziozko halako egoeretan esku hartu dezaketen bakarrak. Udal instituzioek ere esku hartu dezakete etxebizitzaren esparruko diskriminaziozko gertakarien aurrean. Horren adibide argia da oso ezagun bihurtu zen kasu bat, Bartzelonako Udalak Idealista higiezinen atariaren aurka izandakoa.

2019ko abenduan hasi zen dena, Bartzelonako Udalak zehapen espedientea ireki baitzion Idealista atariari, alokairuko etxebizitza baten iragarkia «soilik espainiarrentzat» zela argitaratzeagatik. Dena den, albistea hedabide guztietan zabaldu zen ezarri zitzaion isuna 90.001 eurokoa izan zelako, Etxebizitzarako Eskubidearen Kataluniako Legeak oso larritzat jotzen baitzuen. Nahiz eta urriaren 22an Bartzelonako Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak zehapena bertan behera utzi, ez baitzuen Idealista bere webgunean ageri diren iragarkien edukiaren arduradun jotzen, horrek ez zion kasuari sona kendu. Izan ere, hura izan zen jatorri arrazoiengatik udalak izapidetu zuen lehen zehapen espedientea.

Hala, eztabaida zabaldu zen: zer rol izan dezakete udal administrazioek diskriminazioaren kontrako borroka orokorrean? Eta etxebizitzaren esparruan gertatzen den diskriminazioaren kontrakoan? Aipatzekoa da, Bartzelonaren kasuan, udalaren bereizkeriaren Kontrako Bulego batean jaso zutela kasua eta gizalegeari buruzko ordenantza baten bidez izapidetu zutela. Honako galdera hau dago airean: Bereizkeriaren kontrako halako udal bulegoak ireki ahalko lirateke EAEko udalerrietan antzeko lana egiteko? Antzeko gizalege ordenantzen babesean jardun ahalko lukete?

Izan daitezela aintzat hartzeko moduko bi galdera Tratu Berdintasunaren Aldeko eta Diskriminazioaren Kontrako hurrengo Euskal Legea eratzen eta onartzen dutenean.

Jendarte eta instituzio tresnak

Baliabide instituzionalen eta diskriminazioarenarloan lan egiten dugun GKE eta elkarteen baliabideen artean, hor nonbait, kokatzen dira Tratu Berdintasunerako eta Diskriminazioaren Kontrako **Eraberean Sarea** eta antzeko tresnak. Sare hori Eusko Jaurlaritzak sustatu zuen eta immigrazioaren arloan, herri ijitoaren baitan eta LGTBIQ+ kolektiboaren baitan diharduten gizarteko elkarteek kudeatzen dute haren jarduna. 2018an **instituzioetan kanpaina bat zabaldu zuten: «Batzen duten alokairuetara batu zaitez».** Hona hemen kanpaina horren azalpena:https://www.euskadi.eus/r01FriendlyUrl2/noticia/2018/la-red-eraberean-promocionara-el-alquiler-de-viviendas-sin-discriminacion/.

Halaber, aipagarriak dira diskriminazioari buruz bi urtean behin egiten dituzten biltzarrak, baita beraien «Ausartak» jardunaldia ere. Azken hori etxebizitzaren esparruko arrazakeriari buruzkoa izan zen, eta 2023ko irailean egin zuten Donostian, Zehar-Errefuxiatuekin elkartearekin batera.

Aldi berean, instituzioen eta gizarteko elkarteen artean kokatu beharko genuke Arraza edo Etnia Diskriminazioa Ezabatzeko Kontseilua (CEDRE) ere, zeinak estatu osoan zehar 23 bulego baititu. Hemen ageri dira haren baliabideak eta azterlanak: https://igualdadynodiscriminacion.igualdad.gob.es/home.do.

Jendarte entitateen eta elkarteen tresnak

Asko gara arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka lan egiten dugun gizarte entitateak eta elkarteak. Etxebizitza bat alokatzeko orduan pertsona migratzaileek, errefuxiatuek eta/edo arrazializatuek jasaten dituzten kasuak artatzen ditugu.

Oro har, entitate bakoitzak bere web orria, tresnak eta salaketa bideak izaten ditu, eta oso erraz aurki daitezke Interneteko edozein bilatzaileren laguntzaz. Eraberean sarea honako elkarte hauek osatzen dugu: Aldarte, Gurutze Gorria, CITE-CCOO Bizkaia, Errespetuz, Kale Dor Kayiko, Nevipen, Agifugi, Gehitu, SOS Arrazakeria Gipuzkoa eta Zehar-Errefuxiatuekin. Elkarte horiek Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan jarduten dugu, eta antena lana da gurea. Hots, diskriminazio egoerak

antzeman eta pertsona zein taldeei arreta eskaintzen diegu. Jasandako diskriminazioaren salaketa prozesu osoan laguntza ematen diegu, bide judiziala edo salaketa publikoa barne (saiatzen gara laguntza hori ez dadin akonpainamendu hutsa izan, eta eduki politikoa izan dezan, hala izan dadin defendatzen duten planteamendu dekonolonialen eta ikuspegi intersekzionalaren arabera jokatzen).

Lan horretako erreferentziazko elkarteen artetik Provivienda Elkartearen lana azpimarratu nahiko genuke (guk dihardugun diskriminazio espazio zehatzean izan duen jokabide berri eta emankorragatik). Irakurri beraien *Etxebizitza diskriminazio egoerei aurre egiteko protokoloa* (hemen eskuragarri: https://provivienda.org/nodiscriminacion/wp-content/uploads/2023/03/Protocolo-contra-la-discriminacion-residencial-2023-PROVIVIENDA.pdf).

Aipamen berezia merezi dute higiezinen sektoretik bertatik sortzen ari diren zenbait ekimenek. Bi aipatuko ditugu, horren erakusgarri:

Hongares higiezinen agentziarena, Valentziako agentzia bat da, etxebizitzak pertsona migratzaileei baino alokatzen ez dizkiena (hemen: https://www.hongares.com/).

Arteale fundazioa, «alokairu kontziente» deritzenak sustatzen baititu pertsona errefuxiatuentzat (hemen: https://arteale.org/eu/errefuxiatuentzako-alokairu-kontzienteak-ez-da-posible-esatetik-parte-hartzeko-erabakia-hartzera/

Herri tresnaak

Gida hau bukatzeko azken urteotan sortu diren herri ekimenei erreferentzia egingo diegu (**gizarte mobilizazioa tresna izan daitekeenaren** erakusle dira). Asko dauden arren, bi aipatuko ditugu, adibide gisa.

Lehenak **Harrera** du izena, eta 2018an sortu zen Donostian eta EAEko beste zenbait udalerritan, herritarren sare antolatu moduan. Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak eta egoera ahulean dauden pertsona migratuak EAEra iritsi zirenean, sare horrek lortu zuen hiriko udalak alokairurako laguntza programa bat aktibatzea kalean zeuden pertsonentzat. Udalak baldintza bakarra jarri zuen: Harrerak berak bilatu behar zituen etxebizitzak, baita etxejabeekin bitartekari lanak eta alokairuen jarraipena egin ere. Programa hau sareak urtebetez kudeatu

zuen, izaera juridikorik izan ez arren, eta biztanleria eskuzabalaren komunitate sentimendua bideratzen jakin zuten.

Ateak zabaltzen izena jarri zioten Gasteizen sortu zen beste ekimen bati (https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/elkartea/asociacion-solidaria-ateak-zabaltzen/asa249052023/). eta hiriko emakume baten eskutik hasi zen, etxebizitza bila zebiltzan emakume errefuxiatu askori laguntzen zien. Emakume izateagatik, atzerritarrak izateagatik eta guraso bakarreko familia izateagatik ateak ixten zizkien higiezinen merkatuarekin topo egiten zuten emakume horiek. Herri ekimen hori hazten joan zen 2023an EAEko Elkarteen Erregistroan izena eman zuen arte.

Amaitzeko, herri eta hirietan arrazismoa edo aporofobia salatzeko sortzen diren herri plataformez gain, ez genuke ahaztu behar **antolatu gabeko hiritarrek, oinezko arruntek, gizarte mugimenduetan edo erakundeetan parte hartzen ez duen horrek ere**, gauza asko egin ditzakeela alokairuetako diskriminazioaren arloan. Hortxe dituzue Yahya eta bere lankidea, elkarri laguntzen, bestearen izenean higiezinen agentziara deitzen, etab. Denok egin dezakegu zerbait: kultura jatorri anitzetako gure bizilagunentzako etxebizitzak aurkitu, abal emaile rola hartu eta lagundu, ulertuz laguntza hori ez dela karitatez egiten den zerbait, zerbait politikoa dela, tratu berdintasunaren alde eta diskriminazioaren kontra egiten dena.